



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

LABek Garbialdiko aldi baterako lan-erregulazioa baliogabetzat jotzea lortu du Tubacexeko lantokietan

Gasteizko Lan Arloko 3. zenbakiko epaitegiak baliogabetzat jo du Garbialdi enpresak Tubacexek Laudion eta Amurrion dituen lantokietan 2021ean zituen lan-kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko lan-erregulazioko espedienteak.

LABek oso positibotzat jotzen du aldi baterako lan-erregulazioaren deuseztasun-deklarazioa, epaitegiak arrazoia ematen baitigu jarritako demandan, eta frogatuta geratzen da langileek defentsa-gabezia nabarmena izan zutela. Epaian ondorioztatzen denez, LABeko ordezkari eta langileen ordezkari bakarrari ez zitzaion behar adina informazio eman aldi baterako lan-erregulazioaren kontsulta-aldiari berme osoz ekin ahal izateko. Gainera, epaitegiak uste du aldi baterako lan-erregulazioa ez dagoela justifikatuta, eta horrek berresten du Garbialdik nahi izan duela langileek ordaintea Tubacexen alde bakarreko ezarpenaren ondorioak.

Horrek agerian uzten du LABek aurretik erreklamatu eta salatu genuena. Izan ere, Amurrioko eta Laudionko Tubacex zentroetako aldi baterako lan-erregulazioko espedienteetan eta greba mugagabeen, garbitzaileek ez zuten zor zitzaien begirunerik izan, ez Garbialdiko zuzendaritzaren aldetik, ezta Tubacexeko zuzendaritzaren aldetik ere.

Amaitzeko, epaiari men egiteko eta errekurtsorik ez aurkezteko eskatzen diogu Garbialdiri.

LABek lanean jarraituko du Tubacexen lantokietan eta garbiketaren sektorean langileen eskubideak defendatu eta errespetatu daitezela.

Laudion, 2022ko otsailaren 3an